

## **16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 23,7koa da 2016ko hirugarren hiruhilekoan**

### ***Aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuz hiru puntuko beherapena dago***

Biztanleriaren Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren (BJA) 2016eko hirugarren hiruhilekoari dagozkion datuak argitaratu berri direla-eta, Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAEko) gazteen langabeziaren egoera aztertu du [Gazteen Euskal Behatokiak](#).

Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, hiru hilean behin lantzen du inkesta hau eta Gazteen Euskal Behatokiari 16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren datuak helarazi dizkio.

### **Zer adierazten du langabezia-tasak?**

Enplegurik ez duten baina lana aktiboki bilatzen ari diren pertsona aktiboen (lan egiteko moduan egonik, azken lau asteetan lana bilatzeko gestioaren bat egiten duten pertsonen) ehunekoa adierazten du langabezia-tasak. Bertan ez dira sartzen lan bila ez dabiltzan ikasleak edo lan egin ezin duten ezgaituak.

### **Zein da gazteen langabezia-tasa 2016ko hirugarren hiruhilekoan?**

EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 23,7 da 2016ko hirugarren hiruhilekoan, biztanleria osoarenarekin konparatuta ia bikoitza (% 12,6).

### **Badago alderik sexu edo lurralde historikoaren arabera?**


Emakume gazteen langabezia-tasa (% 24,3) gizonena (% 23,1) baino handixegoa da.

Lurralde historikoei dagokienez, ikus dezakegu Gipuzkoan gazteen langabezia-tasa beste lurraldeetan baino baxuagoa dela (% 19,3, hain zuzen ere). Bizkaian eta Araban portzentajeak parekoak dira (% 26 eta % 25,9, hurrenez hurren).

### **Zein izan da bilakaera?**

2016ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuz langabezia tasa 0,5 puntu igo da eta aurreko urteko hiruhileko berdina begiratzen badugu portzentajezko hiru puntuko jaitsiera eman da, % 26,7tik oraingo % 23,7ra pasatuz.

EAEko 16-29 urte bitarteko langabeziaren tasa. 2016ko III. Hiruhilekoa,  
2015eko III. hiruhilekoaren tasarekin konparatuz



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak eginda, Eustaten datuak (BJA) oinarri hartuta

Datu hauek [Gazteen Euskal Bahatokiaren Estatistiketan](#) ere kontsulta daitezke, **Lana** ataleko **Jarduera, Okupazioa eta Langabezia** azpiatalean.